

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Jendaurrean jartzea jarduera sailkaturako lizentzia

6_860k udal lizentzia eskatu zuen Erroetako 5 poligonoko 222 lurzatian behien abeltzaintza jarduera egiteko (110,85 AzLU). Hartara, behar den espedientea izapidetzen da aurkeztutako dokumentazioaren arabera.a

Horregatik, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 58.1 eta 58.2 artikuluetan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da, ezarri nahi den jardueraren eraginpean daudela uste dutenek espedientea aztertu eta egoki iritzitako oharrak aurkez ditzaten hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Espedientea udal idazkaritzan egongo da interesa dutenen eskura.

Maeztu, 2020ko otsailaren 12a

Alkatea

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA